




# Gazte Inkesta.

Abotsanitzek, Hondarribiko gazteek dituzten beharrak aztertzeko eta udalarekiko duten asetasun-maila neurtzeko inkesta bat abiatu du. Bertan, datu demografikoak jaso dira (sexua, adina, bizilekua, etab.) alde batetik, eta bestetik berriz udaletxeak gazteentzako proposatzen duen aisi aukera baloratzeko eta dituzten beharrak jasotzeko galderak. Ikerketa hau Hondarribiko gazteen isla fidela izan dadin, oraindik lanean dihardugu. Gaztea bazara eta ez baduzu inkesta bete, beraz, garaiz zabilta!

Orain arte jaso ditugun erantzunetatik hainbat ideia modu nabarian agertzen dira. Batzuk plazaratu nahi ditugu.

- Emakumeak
- Gizonak
- Beste bat
- Ez dakit/ Ez dut erantzun nahi

Jasotako erantzunen artean, zabalagoa izan da gizon gazteen parte hartzea, emakumeena baino.



Ateratzen den datu esanguratsuetako bat da %80arentzat Udalak eskaintzen duen aisi aukera ez dela nahikoa. Gehienek kiroldegian, kalean edota tabernan igarotzen dute denbora libre. Emaiza hau ondorengo galdera honekin lotzen dugu:

“Baloratu Udalak zure adineko jendearentzat egiten dituen ekintzak”

- Nahikoa da
- Ez da nahikoa
- Ez dakit/ Ez dut erantzun nahi



Esanguratsua da ia %30ak 0 puntu ematea Udalaren eskaintzari.

Inkestan jasotzen diren datuak osatzeko, galdera ireki batzuk proposatu ditugu aisialdirako programei buruz, eta jasotako iritzi guztien artean hauek dira batzuk:

Zer aldatuko zenuke? Idatzi aldatuko zenukeena

Hauek dira erantzunetako batzuk:

-Gazte lokal bat nun gazte ekintza edo tailerrak dauden, Hondarribiko gazteen erlazioa sustatzeko.

-Neguan batez ere oso leku gutxi daude (bat ere ez ez esateagatik) gazteak elkartzeko eta elkarrekin gauzak egiteko.

-Lehenik, gazteek udaletxean aurkezten dituzten proposamenak aurrera ateratzen laguntzea. Gazteek ez ditugu ideiak proposatzen “a lo loco”, behar bat ikusten dugu eta udaletxearen erantzuna eta jarrera askotan oso itxia da. Nire

ustetan, udaletxeak askoz gehiago egin dezake.

-Kirol talde berri bat osatzea elkarkidetzaz sendotzeko.

-Kontutan hartu 16 urte inguruko gazteok asteburuetan ez daukagula non sarturik. Hotza eta euria egiten duen tarako gehiengoak ez du lokalik. Lokalen inguruan, ezinezkoa da lokal egoki eta merke bat aurkitzea askotan jabeek ezetz esaten dutelako.

-Ez dago elkar-puntu fisikorik ezta sinbolikorik ere herri honetan, “herriko plaza” falta da.

-Gaztetxe bat, ez gazteLEKU-rik ezta gazte xaia-rik. Hezkuntza, irakaskuntza, kontzertu gehiago, lanpostu gehiago herrian, alokairua edo pisuen prezioa jaiste, prezio duinak tabernetan, OTA kendu asteburuetan, radarrak kendu, euskara gehiago bultzatu herrian eta bukatzeko, Hondarribiko gazteak gero eta droga gehiago kontsumitzen dute, eta gainera, oraingo gazteak beste inoiz baino lehenago hasten dira droga erregularki hartzen; hori da larriena!

-Konzertu gehiago egitea.

Beste galdera ireki batean, udalak aisialdia antolatzeke egin beharko lukeenaren inguruan galdetzen zaie gazteei. Hauek dira erantzunak:

Nola bideratu beharko lituzke politika horiek udalak?

-Gazteen iritzia jakinez.

-Erabakietan eta ekimenak hartzeko orduan parte hartzea sustatuz. Erabakiguneak herritarroi zabalduz.

-Gazteoi gehiago entzuten eta kasu egiten proposatzen diren gauzei. Proposatu badira zerbaitegatik da.

-Norberak jakin beharko du zer egin eta nola bideratu bere politikak. Hiritarrek, lau urteetan egindako lanak aztertu ondoren, hautagai onenak aukeratu ditu.

-Espazioak bideratzen eta aukera gehiago emanaz. Ekitaldiak gehiegi bideratzean, politizazioaren trabarekin aurkitu daiteke, eta kontrari gazteen zatiketa. Bestalde, orokorrean gazteen aisialdian jai giroa sustatzea oso garrantzitsua izan daiteke, herrian gustura izateko eta ez kanpora irten nahi izateko. Nahiz eta bigarren maila bateko arazoa iduri, tabernen gau ordutegia OSO eskasa da tamaina bereko beste herriekin alderatu ezker.

-Onura ekonomiko hutsa bultzatzen duten ekimenetatik urrundu (tabernak eta komertzioak aberasten dituzten ekintzak) eta gazteen behar eta interesak (parranda egiteaz harago doazenak) sustatzera bideratuz.

-Gazteen arteko elkartzea bultzatuz.

-Gazte kontseilu bat sortuz, non gazte jendeak hitza eduki dezakeen. Udalak bere kabuz ezin du jakin zein den gazte jendearen errealitatea ezta zein behar sozial edo kultural dituen. Horretarako oso beharrezkoa da gazte jendeak hitza edukitzea eta beraien iritzia guztiz kontutan hartzea, hau baita benetako errealitatea, eta ez udaleko zinegotzi bati bururatu zaiona.

Azken galdera ireki batean herrian ikusten diren beharren inguruan galdetzen zaie gazteei:

Herrian ikusten ditudan beharrak honakoak dira:

-Gazteontzat jarduera gehiago, lokal gehiago, asteburuetan edo festetan adingabeak egoteko tokiak etab.

-Jai egitarauak osatzeko parte hartze prozesu irekiak.

-Diru laguntzak Hondarribiko gazteen alokairurako, herrian gera daitezen. Alokairu oso garestiak daude eta Hondarribia geroz eta herri zaharragoa bihurtuko da gazteak ez baditugu mantentzen; laguntzak eta alokairu murrizketak Hondarribian bizi diren gazteentzako. Laguntza hauek ozenki aditzera eraman kartelen edo antzekoen bidez, denak jakinaren gainean edukitzeko.

-Gazteentzako erraztasunak jarri: txirrindua alokairu zerbitzua herrian dohain jarri 30 urte beherakoentzat herriko auzo desberdinetako gazteak elkartu ahal izateko; edo tarifa sinboliko bat (20€ urtean?).

-Herritarrengatik kezkatzea eta hauek behar dituzten gauzak sustatzea eta arazoei aurre egitea irtenbideak eskainiz. Turismoak inpaktu handia dauka herriko ekonomian eta zaindu behar da baina aldi berean herritarrekin ahaztu gabe eta Hondarribia zainduz eta errespetatuz.

-Gazteentzako etxebizitzak, Alde Zaharraren berpiztea (baliteke bi behar hauen artean harremana egotea).

-Herrian bertan lana sustatzea, herri aktiboa eta bizia sustatzea. Herrian dugun gatazka nagusiar irtenbidea ematea.

-Udalak ez ditu gazteentzat parrandak sustatu behar, askok nahiko luketen bezala.

-Gazteen aisialdira zuzenduriko ekintza edo espazioei izaera politikoa kentzea (Olinpiadek lortu zuten bezala, adibidez).

-Gazteentzako benetako gune autogestionatu bat, gazteei bideratutako ekintza publiko gehiago, etxebizitza merkeagoak etab.

-Herri hau ezin hobea da bikote gazte ezkonberri eta ume txikiak dituztenentzat; etxea erosten edo erosi berria dutenentzat (hots, 30etik gorakoentzat). Horiei zoriontsu ikusten zaie Portuan poteatzen eta Butroitik paseoan. Baina ezin aspergarriagoa da gainontzekoentzat. Ez dago eskaintzarik ez interesik gazteagoak direnentzat: guztiak lokaletan sartuta daude/gaude, otzanduak, edo Hondarribitik kanpo ateratzen gara herriko giro formal eta "pureta" ekiditearren, herrian ez dagoelako zer eginik. Uste dut eskaintza publiko eta debaldeko gehiago antolatu beharko lirakeela eta diziplina eta esparru anitzagoetakoak (bada mundurik arrauna, futbola eta Alardeaz gaindi). Eta udalak ezer egiteko asmorik ez badu, egokia litzateke, bederen, bere esku dituen azpiegiturak herriari eskaini eta errazago utziko balizkio (gaztetxe, gazte leku, bilera lokalak, tailerrak egiteko...).

-Lanpostuak, pisuak, euskara gehiago hitz egin herrian eta ekitaldi edo kontzertu gehiago.

-Gazteoi laguntza gehiago eskaintzea egiten diren proposamenetan.

-Herriaren bizikidetzak hobetzea: mendi-kirolen beharrak asetu eta erabilera eta bizikidetzarako lekuak eta arauak jartzea (zaldiak, motorrak, bizikletak, korrikalariak, oinezkoak, famili-irteerak, ehiztariak...).

-Gazteak alde egiten dute bizi maila altua delako, ezin diegu 1000 euroko alokairuei aurre egin. Udalaren aldetik bere bermea beharrezkoa da, lana, alokairuak eta aisialdirako ekintzak hobetuz.

Inkestako galdera irekiek beste gai batzuk ere azaleratu dituzte, aisialdiaren inguruko kezkez gain, hala nola, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak, lan eskaintza eskasa edo eta Hondarribian bultzatzen den turismo eredia.

Hau dena ikusirik, oraindik datu gehiago jaso eta etorkizunean Udalean proposamen egokiak bideratzeko asmoz, gazteak animatu nahi zaituztegu inkesta honetan parte hartzen jarraituzera, eta orain arte parte hartu duzueni gure esker ona adierazi nahi dizuegu; denon artean egingo dugu Hondarribia.

Parte hartzeko bidea:



Maribel Gartzia

### NESKA BAT LEKU INPOSIBLEAN

Egilea: Xabier Amuriza  
Eleberria. 2018  
Editoriala: Elkar

Abenturazko eleberri mardula, sorpresaz eta misterioz beterik. Batzuk liburuaren zehar argituko dira. Beste batzuk, ez. Egileak irakurlearen imajinarioari baimena ematen dio gustukoaren dituen bideak asmatzeko. Hizkera oso aberatsa eta bizkaierazko lurrina duena.

Kartzela batean gertatzen dena fikzioa izanik, oso ondo deskribatzen du eguneroko bizitza eta han bizi diren gogoak eta asmoak. Narrazioa bi ahotsek kontatzen digute, eta beraien begietatik ikusiko ditugu beste protagonistak eta han bizi dituzten abenturak. Ez daude kapituluak baina egileak oso ondo markatzen du, aldiro, nork ari zaigun hitz egiten.

Zer gehiago esan? Hasiera neketsua egin zitzaidala, baina laster harrapatu ninduen liburuak, eta bukatzean pena moduko bat sentitu nuen, ezagututako lagunei agur esaterakoan. Merez du!!!

(Udal liburutegian badago)

## • **LEGE-IRUZURREKO KONTRATUAK**

Gauza jakina dugu Hondarribiko Udalean langileriaren inguruan dauden arazoetan nabarmenetako bat Lege-iruzurreko kontratuena dela. Mahai gainean jarri izan ditugu hainbat egoera. Bada, ordea, jasangaitza den egoera bat: euskaltegiko langileena hain zuzen.

Aurreko urtean, 2017ko udaberrian, epai baten berri jakinarazi zitzaigun udal ordezkarioi. Kaleratutako euskaltegiko langile baten helegitearen ondotik, Euskadiko arlo sozialeko epaitegiak ebatzitako 88/2017 sententziaz aritu ginen bilera horretan. Sententzia honek langilea lege-iruzurrean (“fraude de ley”) kontratatua zegoela frogatutzat ematen zuen.



Epaiak frogatutzat eman du aldi baterako, ikasturte baterako, kontratatzen diren langile hauek lege-iruzur (fraude) egoeran kontratatzen direla eta konponbidea ere ezartzen du lehen adierazitako sententzian: “entiendo que nos encontramos ante un trabajador fijo-discontinuo”. (Alegia, “aldizkako langile finko baten kasuan gaudela ulertzen dut) Adierazi ere egiten du epaiak, badaudela antzekoak diren beste egoera batzuetan antzeko sententziak jasota. Hala nola, 2010eko uztailaren 6ko Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren (TSJren) sententzia, 2010eko urtarrilaren 22an Asturiasko Justizia Auzitegi Nagusiaren sententzia, 2014ko martxoaren 20ko Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiaren sententzia, etab.

Abotsanitz Udal Taldeak hainbat batzordetan, eta baita idatzien bidez ere, egoera hau konpondu beharraz aritu izan da. Udalean legez kanpo kontratatuta egon daitezkeen langileen azterketa bat egitea proposatu izan du eta beraien egoera legediaren barne kokatu beharra adierazi nahi izan du. Nahiz eta euskaltegiko langile baten sententzia irmoa daukagun, Abotsanitzek 12-15 langile egoera berean egon daitezkeen ustea daukala adierazten du.

Bada, urtebete pasa den honetan, Udalaren aldetik ez da urratsik eman adierazteko zein langile egon daitezkeen arauz kanpo kontratatuta, ezta euskaltegian bertan sententzia horretan adierazten den egoeran dauden beste 4 langileren kontratazioa egokitze aldera ere.

Oinarrizkoa da aipatzea Administrazio publikoak ez lukeela iruzur egoeran langilerik kontratatu behar. Arduragabekeria nabarmena da egoeraren jakitun izanik konponbiderako urratsik ez ematea.

Abotsanitz Udal Taldeak Hondarribiko Alkateari eta udal idazkariari zera proposatzen die:

- Euskaltegiko langileen kontratazio egoera urgentziaz konpon dezala. Hone-tarako, epaitegiaren sententzia kontuan hartuta, obra-kontratua duten langileak aldizkako kontratu finkora (“fijo-discontinuo”) pasatzea.

- Udalean urte luzez aldi baterako kontratu bidez kontratatutako langileak lege-iruzur egoeran egon daitezkeen azter dezatela eta lehenbailehen egoera horiek konpon ditzatela.

## • HONDARRIBIA ETA IRUNGO HIRI HONDAKIN SOLIDOAK

Gure kezka eta ezinegona adierazi behar dugu gaur egun Txingudiko mankomunitateak duen jarrera eta egiten duen jardunarengatik Hiri Hondakin Solidoen kudeaketa-ri dagokionean.


Abotsanizetik behin eta berriz eskatzen ari gara, Txingudiko mankomunitateak bestelako jarrera bat har dezan, gai honi dagokionean. Baina gaurdaino, ez dugu goro-razko jarrera eta erantzunik jaso.

Gure eskualdean, birziklatze tasa %48,5a den bitartean, gainontzeko zaborraren erdia baino gehiago errefusa gisa sortzen ari gara. Gipuzkoako zabortegiak bete ditugula eta gainezka daudela ozen entzun ahal izan dugu azken urteetan, baina aldi berean ez ditugu bere osotasunean neurri eraginkorrak hartu hori ekiditeko. Bestelako sistemak abiatu izan direnetan, jakin badakigu zer nolako kanpaina mediatiko-politiko eman izan den Gipuzkoan.

Hondarribia eta Irunen errefusarentzako ontzia (kontenedorea) nolahi erabiltzen da eta bertan mota guztietako edukiak lagatzen ditugu (plastikoa, kartoia, organikoa, aulkiak, mantak, arropa, etab luze bat).

Gaur egun zabortegietan, 22.000 tona errefusa metatzen ari gara urteko eta kudeaketa egokiagoa eginez gero, 4.000 tona izango lirateke. Gogor salatu behar dugu Txingudiko mankomunitateak duen jarrera arduragabea, nola TXINZER S.A. enpresaren aldetik, hala nagusi diren alderdi politikoetatik ere.

Gure eskualdean, gai honi lotutako eztabaida eta parte hartze prozesuak abiatu ditzan eskatu dugu mankomunitateko batzarretan, birziklatze tasak nabarmenki gora egin dezan. Baina argi geratu zaigu ez dela Hiri Hondakin Solidoen gaineko eztabaidarik eta halako prozesurik eman nahi.



### LOS RESIDUOS SÓLIDOS URBANOS EN HONDARRIBIA E IRUN

Una vez más Abotsanitz manifiesta su preocupación y su desasosiego ante la postura de la Mancomunidad de Txingudi en lo que se refiere a la gestión de Residuos Sólidos Urbanos. Una y otra vez hemos solicitado un cambio de actitud, pero hasta la fecha no hemos constatado ningún gesto eficaz, ni contestaciones razonables en este sentido.

En nuestra comarca, la tasa de reciclaje representa el 48.5%, esto quiere decir que producimos más de la mitad de los residuos como "fracción resto". A pesar de haber estado continuamente oyendo, durante años, de la sobre-explotación en los vertederos de Gipuzkoa, no se han tomado medidas integrales eficaces para afrontar el problema y cuando se han dado alternativas, todos conocemos la campaña mediática-política que se dio en Gipuzkoa.

En Hondarribia e Irún el contenedor de la "fracción resto" se utiliza de cualquier manera, y en él dejamos todo tipo de objetos y materiales (plástico, cartón, orgánico, sillas, mantas, ropa, y un largo etcétera). En la actualidad arrojamos anualmente a los vertederos 22.000 toneladas de "fracción resto", cuando con una correcta gestión lo reduciría a 4.000 toneladas.

Es nuestro deber denunciar enérgicamente la postura irresponsable en la Mancomunidad de Txingudi por parte de la empresa TXINZER S.A. y de los partidos políticos que deciden. En las asambleas de la Mancomunidad hemos solicitado repetidamente que se abra un proceso participativo para debatir todos los aspectos del problema, con el claro objetivo de elevar las tasas de reciclaje de los Residuos Sólidos Urbanos, pero es triste constatar que no existe voluntad alguna de promover dicho proceso.

## • 2017 UDAL KONTU LIKIDAZIOA

**Aurrekontua: 31.989.595M€**

**Gastuak: 17.931.163M€**

- Inbertsioetan % 24 besterik ez da garatu (2.226.983 €)
- Gastu arruntetan % 70 erabili da (7.094.325 €)

**Sarrerak: 23.169.068M€**

- Zerga zuzenetan %119 bildu da (7.872.632 €)
- Tasa eta bestelako bidez %173 (2.338.947 €)
- Isunen atalean % 495 jaso da (445.664 €)

**Emaitza:**

- Urteko soberakina 5.237.905M€
- Azken hiru urteen batz bestekoa 5,4M€
- Gaur egungo udal soberakina 43M€

### Ondorioak:

Hondarribiko Udalak aurreikusitakoa baino diru kopuru handiagoa jasotzen du eta gastuak gutxiago dira.

Hondarribiarrok ez dugu behar adina zerbitzu jasotzen.

Aurrekontuak gauzatzeko zailtasun nabarmenak ditu udal gobernua. Horretarako udal langilegoa eguneratu eta handitu behar da. Udal langilego eta hondarribiarrok onurarako.

Aurrekontuak ahalik eta gehien egikaritu behar ditugu eta ez badago horretarako gaitasunik, herritarroi tasa eta zergak jaitsi behar gizizkieke.

GASTUAK / URTEA	2017			SARRERAK / URTEA	2017			EMAITZA
	AURREKONTU	LIKIDAZIO	%		AURREKONTU	LIKIDAZIO	%	
OROKORRA	31,989,595	17,931,163	56	OROKORRA	31,989,595	23,169,068	72	5,237,905.00
1.- Pertsonala	6,141,163	5,124,439	83	1.- Zerga Zuzenak	6,623,575	7,872,632	119	
2.- Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuak	9,921,495	7,094,325	71	2.- Zeharkako Zergak	90,000	445,664	495	
3.- Finantza Gastuak	6,500	4,165	64	3.- Tasak eta Bestelako Z.	1,349,334	2,338,947	173	
4.- Transf. Arruntak	3,946,189	3,378,531	86	4.- Transf. Arruntak	11,097,720	11,859,194	107	
5.- Kontu Globalak eta Bestelakoak	86,749	0	0	5.- Ondare Sarrerak	24,603	24,679	100	
6.- Inbertsio Errealak	9,291,129	2,226,983	24	6.- Inbertsio Errealak	0	283,487	283,487	
7.- Kapital Transf	2,263,371	102,720	5	7.- Kapital Transf.	312,000	344,465	110	
8.- Finantza Aktiboak	333,000	0	0	8.- Finantza Aktiboak	12,492,363	0	0	



Hona hemen jarraian Abotsanitz udal taldeak egindako hainbat mozio.

Éstas son algunas de las mociones presentadas por el grupo municipal de Abotsanitz.

kitze kostua izan zuen.

Alabaina, eraikin hauen erabilera arautuko duen ordenantzarik ez da garatu Hondarribiko Udalean. Eraikin hauen erabilera egiten duten elkarteek ez dute beraien jardunbidea zehaztuko duen inolako hitzarmenik adostu ahal izan Udalarekin.

Bestalde, Hondarribiko herri-tarrek, zein kanpoko edozeinek, areto nagusia erabili nahi duenean gune honen irekieragatik arautu gabeko

## KULTUR EKIPAMEN- DUAK

Hondarribiko Udalak hamar-kada honen hasieran eraikitako kultur ekipamenduetan bi:

\*Bata, Itsas Etxea entzunaretoa (auditoriuma) 2011. urtean egindako eraikina dugu; 4.500.000 € inguruko eraikitze kostua izan zuena.

\*Bestea, Kultur Etxea, 2012. urtean egin da eta 6.000.000 € inguruko erai-



ordainketa bati aurre egin behar izaten dio. Kostu horiek ere ez daude udaleko arau fiskaletan zehaztuta.

Guzti honek ezjakintasun juridikoa eragiten die eraikinen ohiko erabiltzaileei, zein aldi baterako erabilera egin nahi duten herritar zein eragileei.

Ez da Hondarribiko Udalean gai honen inguruan aritzen garen lehen aldia legegintzaldi honetan. Jakitun gara, gainera, aurreko legegintzaldietan ere honen inguruan aritu izan zirela udal ordezkariak.

Legegintzaldiaren bukaera gerturatzen ari den honetan, beharrezkoa deritzogu ziklo hau amaitu aurretik erabilera araudia zehaztea.

Abotsanitz Udal Taldeak Hondarribiko Udalbatzari zera eskatu nahi dio:

\*Herriaren kultur ekipamendu diren eraikin garrantzitsu hauen erabilera araudia burutzea.

\*Eraikin hauen erabilera ohikoan egiten duten elkarteekin hitzarmena burutzea.

## EQUIPAMIENTOS CULTURALES

Al inicio de ésta década se inauguraron dos importantes equipamientos: el auditorio de Itsas Etxea (2011) y el edificio de Kultur Etxea(2012). Pero **todavía no existe ninguna normativa que regule su uso**, y las asociaciones que los utilizan no han podido consensuar con el Ayuntamiento **ningún acuerdo** al respecto. Además, para usar el salón de

actos hay que hacer frente a un desembolso que no está regulado. Tampoco la normativa fiscal municipal es precisa al respecto. Los usuarios –tanto habituales como ocasionales, hondarribitarras o foráneos- estamos desinformados y, por lo tanto, desprotegidos. Pensamos –y así lo solicita Abotsanitz al equipo de gobierno- que antes de que finalice esta legislatura, debemos contar con **una normativa** que regule el uso de estas infraestructuras, y para ello es fundamental llegar a **un acuerdo entre los usuarios**.

## ZERBITZUEN KONTRATZIOA

Abotsanitz Udal Taldeak behin baino gehiagotan aditzera eman du Hondarribiko Udalak kontratatuta dituen hainbat zerbitzu epez kanpo ari direla lanean.

Egoera honen eguneratzea ezinbestekotzat jotzen dugu hainbat arrazoiengatik; kudeaketa egokia, lehiakortasun printzipioa errespetatzea, gainkostuak ekiditea, etab.

Ondorengo hauek dira gaur egun kontratua iraungita daukaten zerbitzuak:

ENPRESA	ZERBITZUA	IRAUNGITZE DATA	DEPARTAMENTUA
ILUNION	Eraikinen Garbiketa	2008/04/11	IDAZKARITZA
MONTAI	Aktibitate Soziokulturaletarako Espazioen Egokitzea	2009/04/30	KULTURA
GUREAK OSTALARITZA, SL	Hondarribiko Adinekoen Etxeko Tabernen Ustiaketa	2016/08/31	GIZARTE ZERB.

Taula honetan ikus daitezkeenez, hainbat zerbitzu urte luzez iraungitako kontratuekin jarraitzen dute lanean, **GUZTIZ ERA IRREGULARREAN!!!**

Aipatu beharra dago, alde batetik, zerbitzu hauek Udalak zuzenean kontratatutako langileekin bete daitezkeela,

eta bestetik, ekarpen ekonomiko handia eragiten duten zerbitzuak ere badirela.

Besteak beste, adibide gisa balio dezan, Montai enpresak azken bost urteetan Hondarribiko Udalarari fakturatutako kopuruak adierazi nahi ditugu:

2012	2013	2014	2015	2016
183.100,92 €	200.777,86 €	173.616,05 €	210.905,06 €	179.419,54 €

Adierazgarria da, baita ere, Kultur Etxea eta Itsas Etxea eraikinen kudeaketa eredu ez dagoela oraindik zehaztuta eta eraikin hauen kudeaketa definitu beharra daukagula, honetan ere berandu bait gabilta.

Beraz, Abotsanitz Udal Taldeak egoera guzti hauek irregulartasunetik ateratzeko eginbideak lehenbailehen egin daitezela eskatzen dio hirikoi Udaltzari.

## CONTRATACIÓN DE SERVICIOS

Algunos contratos realizados por el Ayuntamiento han caducado. Consideramos imprescindible actualizarlos por diversas razones: para mejorar la gestión, por respeto al prin-

cipio de competitividad, para evitar sobrecostes, etc. En las tablas adjuntas se pueden observar las fechas de extinción de dichos contratos y un ejemplo de los importes facturados. Se trata de servicios que suponen un desembolso importante y que pudieran ser gestionados con personal contratado directamente por el Ayuntamiento.

## ESKAERAK



### BEILATOKIA GABARRARI KALEAN?



Hondarribian 2017ko Ekainaren 8an Ezohiko Udaltzari onarturiko HAPOan hartzen omen du oinarria erabakiak. Bertan, Arau Orokorren barnean, B/4.6 zonaldeari dagokionean, zonaldearen erabilera Itsas eta Arrantzako ekonomia-jardueretarako dela adierazten da. Zehazki adierazten da zein diren aurrekusitako erabilerak, erabilera bateragarriak eta baita ere zein erabilera dauden espresuki debekatuak.

Donostiako Aireportuaren zortasun aeronautikoa dela eta, Aire Seguratasunaren Estatuko Agentziaren baimena ezinbestekoa da lanak egin eta aktibitateari ekiteko. Hasiera batean ez da aurkeztu agentzia honen baimenik eta lanak has-teko baimena aldiz udalak

eman du.

Kostaldeei buruzko legearen baitan ere zehaztapenak bete beharrekoak ditu eremu honetan egin nahi den edozein aktibitatek. Honen arabera, 22/1988 Kosten Legeak jasotzen dituen zehaztapenen arabera 23., 25. eta 26. artikulua ez direla errespetatzen ulertzen dugu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua 202/2004 Dekretuak arautzen du. Honen arabera, aktibitate hau garatzeko eginbideak ez dira eskatzen eta araudiak dioena ere ez dela errespetatzen deritzogu.

### ¿UN TANATORIO EN GABARRARI KALEA?

El 8 de junio de 2017, en Pleno Extraordinario del Ayuntamiento y tomando como base el Plan General, se acordó que las actividades económicas a desarrollar en la zona B/4.6 deberían corresponder al sector marítimo-pesquero, describiéndose con detalle las actividades permitidas y las prohibidas.

Además, el permiso de la Agencia Estatal de Seguridad Aérea es imprescindible para acometer cualquier actividad en esa zona, así como la observancia de todas las especificaciones de la Ley de Costas y también del Reglamento de sanidad mortuoria de la CAPV.

Entendemos que en el proyecto de Tanatorio no se respetan estas premisas y, consecuentemente, SOLICITAMOS:

-que se retire el permiso de obras concedido

-que se respete escrupulosamente el carácter marítimo-pesquero de las actividades económicas en esta zona.



## 2. ESKUALDAKETAKO ETXEBIZITZA ZOZKETA



Bigarren eskuko etxebizitzaren zozketa Otsailean burutu zen. Abotsanitzek, eskaera oinarrietan aldaketa batzuk gauzatzea eskatu zituelarik.

Aldaketa hauen xedea, hondarribiarren oinarritzko eskubidea den etxebizitza eskubidea gauzatzeko aukera zabalago eta justuagoak ezartzean datza.

PROPOSATZEN DA:

-Bigarren eskuko etxebizitza publikoak udalak zuzenean eros ditzala eskatzen dugu, bigarren eskualdaketa erregistro zerranda behar bezala gauzatuz. Hau gauzatzeko Udalak baliabide tekniko eta ekonomikoak dituela ulertzen dugu. Honen helburua, etxebizitzaren sal-erosketa prozesuan espekulazioa ekiditea da. Bigarren eskuko etxebizitza sal-erosketa publikoen prozesuan halako kasuak ematen direla aipatu izan digute eta Udalak egoera hauen Berri izan duela ere. Beraz, espekulazio kasuak gertatzea ekiditeko Udalak bestelako jarrera bat izan behar duela deritzogu, beharrezkoak diren neurriak hartuz.

-Bizikidetzaren unitateari dagokion etxebizitzetan aldaketak egitea beharrezkoa ikusten dugu. Egitura bateko edo bestelako etxebizitza batean izena emateko aukerak zabaldu beharditugu. Hain zuzen ere:

-Lau logelako etxebizitza kopuruaren eskasia ikusirik, bost kideko bizikidetzaren unitateak hiru logelako etxebizitzan izena emateko aukera izan dezatela (bat edo beste).

-Bi logelako etxebizitzari dagokionez, kide bat, bi edo hiru dituzten bizikidetzaren unitateek aukera hau izan dezatela.

## VIVIENDAS DE SEGUNDA MANO

En febrero hubo sorteo de viviendas de segunda mano. Con el objetivo de ampliar las oportunidades, Abotsanitz solicitó algunos cambios en las bases de participación. PROPONEMOS:

-Que el Ayuntamiento compre directamente las viviendas de segunda mano, evitando cualquier posible especulación en el proceso de compra-venta.

-Que se flexibilicen los criterios que relacionan tipo de vivienda y núcleo de convivencia. Por ejemplo:

- que, contemplando la escasez de viviendas de cuatro dormitorios, los núcleos de cinco personas puedan optar a las de tres dormitorios.
- que los núcleos de una o dos personas tengan opción a viviendas de dos dormitorios.



## ITURRI-BERRIKO BIRIBILGUNEA



Iturri-berriko biribilgunea egoera tamalgarrian aurkitzen denaren susmoa dugu. Lurrean ikus daitekeen zuloaz gain, gunea eusten duen harresi paretan dauden zartadurak ere nabarmenak baitira.

Bada denbora bat, aski luzea, gai hau batzordean eztabaidatu genuela. Orduan ikerketa bat egiteko asmoa adierazi zen, baina gaurdaino ez dugu inolako emaitzarik izan gai honen inguruan.

Udalbatzak aurrekontuen eztabaidan diru partida bat jarri ere, jarri zuen; baina ezertarako.

Gaiaz jardun ginetik hona, egoerak okerrera egin duela nabarmen ikus daiteke eta inolako ezbeharririk gertatzeko arriskuak ekiditea, hobe.

ESKATZEN DA:

-Egin beharreko ikerketak urgentziaz burutzea.

-Ikerketa horretatik ateratako ondorioak lehenbailehen gauzatzea.

## ROTONDA DE ITURRIBERRI

La rotonda de Iturriberri se encuentra en una situación lamentable, con desperfectos en pavimento y muros. Desde hace tiempo se viene debatiendo la cuestión, incluso en comisión, y se dedicó una partida de los presupuestos para hacer algo al respecto. Pero en vano, la situación ha empeorado, y es responsabilidad de todos tratar de evitar una desgracia.

SOLICITAMOS una investigación urgente y el desarrollo inmediato de las conclusiones de la misma.